

III. Prebentzio Plana: Nafarroako drogak eta zaletasunak. 2018-2023

III. Prebentzio Plana: drogak eta zaletasunak jarduteko hiru eremu handiren inguruan eratzen da, deskribatutako egoerari erantzuna eman ahal izateko, kontuan hartuta dagoen lege-esparrua eta erreferentziazko esparru teknikoa (Drogen eta Toxikomanien Europako Behatokiaren 2013-2020 Estrategia eta Plana; Drogen Plan Nazionala: adikzioei buruzko 2017-2024 Estrategia Nazionala; Adikzioei buruzko 2018-2020 Ekintza Plana; Nafarroako Osasun Plana eta Osasun Publikoaren Plana; e.a.).

Hona hemen inplikaturikotako agente ezberdinekin batera garatzen ari diren edo laster garatuko diren jarduerak-eremu hauetan nabarmendu beharreko zenbait ekintza:

1. Eremua. Gobernantza, lidergoa eta koordinazioa: departamentu arteko lana (NOPLOI, Hezkuntza, Gazteria, Eskubide Sozialak eta Barne Departamentua); Gobernua (Apustu-etxeak irekitzeko luzamendua; Jokoaren inguruko Lege berria estatukoarekin koordinatuta), Informazio eta sentsibilizazio sozialerako kanpainak: alkoholaren eta cannabisaren kontsumoaren gainerako errefortzua eta tabakoari eta jokoari buruzko berriak.

2. Eremua. Prebentzioa eta osasunaren sustapena: ikastetxeetan substantziadun edo substantzia gabeko zaletasunen prebentziorako gida berria etapa guztietarako, Hezkuntza Departamentuarekin lankidetzan; 'Familian prebenitu' proiektua; aisia osasungarriaren sareko tokiko proiektuak; PASE proiektua drogak kontsumitzeagatik edo edukitzeagatik zigortutako adingabeekin; 'Osasun gaztea' web orrialdea; erretzen ez hasteko edo erretzeari uzteko osasun-etxeetako aholkuak; e.a.

3. Eremua. Ezagutzaren sozializazioa, prestakuntza eta ikerkuntza: profesionalen eta inplikaturikotako agenteen prestakuntza; ikerkuntza berriak: "Alkohola eta tabakoa kontsumitzen hasteko testuinguruak", 'Gazteriaren eta Osasunaren Nafarroako 2019/2020 Inkesta', Nafarroako Jokoari buruzko Txostena; eta ESTUDES eta EDADESen segimendua (15 eta 64 urte arteko pertsonen Zaletasunen Plan Nazional berekoa).